

I.I. IGERI EGITERA

Beste ikastetxeeran gertatzen den bezala, laugarren mailako Jon, Miren, Oihana, Maria eta Hamed lagunak astero igeri egitera joaten dira ikaskideekin polikiroldegira.



01

Igeri egiterakoan gorputz osoa erabiltzen dugu, baina zer da gehien erabiltzen duguna?

- A. Digestioa.
- B. Arnasketa.
- C. Odolaren zirkulazioa.
- D. Mugimendua

Polikiroldegietako igerilekuetan beti persona bat (soroslea) egon behar da istripua izan duten pertsonari laguntza emateko.

Zoritxarrez, batzuetan irudietan azaltzen dena egin behar izaten dute sorosle horiek.



Kasu horietan egiten dutena, zure ustez, zer gorputz atalarekin dago erlazionatuta?

- A. Digestioarekin.
- B. Odol zirkulazioarekin.
- C. Arnasketarekin.
- D. Mugimenduarekin.

03

Dakizunez, igerian ikasten hastean uretan arriskurik ez egoteko flotagailuak erabiltzen dira: besoetan eta gerrian jartzen direnak, kanoak, airez betetzen direnak, kortxoskoak...

Material ezberdinek flotatzen duten ala ez jakiteko laugarren mailako lagunek esperientzia bat egin dute gelan: objektu batzuk uretan sartu eta datuak taula batean jaso dituzte:

OBJEKTUAK	FLOTAZIOA
Egur tako bat	Bai
Burdinazko kanika	Ez
Zotza	Bai
Guraizeak edo artaziak	Ez
Plastilinezko bola	Ez
Grapagailua	EZ
Metalezko lata hutsa	Bai
Plastilinazko potea	Bai

Zer ondorio atera dezakezu datu hauetatik?

- A. Gauza luzeak flotatzen dute.
- B. Plastilinazko gauzek flotatzen dute.
- C. Metalezko gauza batek ere ez du flotatzen.
- D. Metalezko eta plastilinazko gauzek duten formaren arabera flotatzen dute.